



## (I) "Nor etorri da?"

Galdera hori ahoan agertzen da ustekabeen pailazoa, behin eta berriz, baliabide gutxi eta etorkizun bako ospitale zahar batean. Agertokian gertaera mingarriak adierazten dira, eta horiek arindu nahian dabil pailazoa, baina ez dago errealitate krudel hori arintzerik.

Oroitzapenak, sufrimendua, itxi bako zauriak, drama kolektiboa, memoria historikoa... ondorio psikologikoen erakuslelhoa dugu antzezlan hau. Gure arbasoek bizi izandako gertaerek, zuzenean ezagutu barik ere, gudan eragin handia dute.

Ikusleak orainetik iraganera, eta alderantziz, etengabeko bidaiak egiten duen bitartean, hainbat gai jorratzen dira antzezlanean: torturak, frankismoan izandako fusilatzeak, zapalkuntza pertsonalak eta sozialak, debekuak, umeen lapurretak, hortxaketak... Denak gaur egungo bizipenetan tartekatuta heltzen zaizkio ikusleari.

Hori guztia kontatzeko erabilitako baliabideak minimalistak eta zainduak dira. Mugimenduak, zehatzak; musika eta musika-tresnak, espresuki aukeratuak; gardentasuna da nagusi aktoreen lanean, ez baitute ezer ezkutuan utzi nahi izan: pertsonaia-aldaketak, agertokiko tresneriaren mugimendu arinak, etengabeko akzioa, etb. ; guztira, zazpi aktore eta hogeit hamar pertsonaiatik gora.

Alegoriaz eta sinbolismoz betetako antzezlanak da. Aktore, gidoilari, teknikari eta koreografoen aldetik, maisu-lana. Barruak astintzeko eta esnatzeko aproposa. Anestesiaturik bizi izateak mina kentzen dizu, baina ez zaitu sendatzen.

## (II)

Inakik, leuzemia duen hamar urteko mutikoak, eta Joxeanek, berrogeita sei urteko gizonak, elkar ezagutzen dute ospitale kaotiko batean. Denak, medikuak zein gaixoak, noraezean ibiltzen dira. Guztiengan nabari dira Gerra Zibilaren ondoriozko aztarna fisiko edo psikologikoak: obus bateko txatata buruan, ume lapurtuak, fusilatuak, euskararen debekua, torturak...

Beldurrak, amets gaiztoak eta itxaropen eza dira protagonista, iragana eta oraina elkartzen diren antzeztoki batean.

Eszenografiak, argiek eta erritmoak gidatuta, ikusleek pertsonaien bidaiak egiten dute. Aktoreek pertsonaia ikusleen aurrean aldatzea bitxia eta ezohikoa da; antzezlan honetan, ostera, teatroaren magia kendu barik, indartu egiten du horrek.

Aktoreen lana, bikaina, asmo handikoa. Hala ere, lortzen dute helburua: memoria historikoa aldarrikatzea.